11117/1 EF5nr GABON JAIETAKO PASADIZOAK 1_71 JESUSA EIZAGIRREREKIN

ELKARRIZKETA SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAKO FINALERDIAK

yjui —— -se .

# Barren

ASTEKARIA



# Asier Marcilla Plaza elgoibartarra, milurteko lehen euskalduna

# liz Inforraatild — CT INFORMATIIa

Jazinto Olabe, 6 . Eibar • Tel. 943 120 156 . E-posta: cti@euskalnet.net

411<utx s K DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

## 16 eta 311,URTE ARTEKOENTZAKO IKAInjmums.....

AULA

| IKASTAROA | IRAUPENA | ORDUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| Internet | 12 ordu | 09:30-12:30 | Larunbata | Unarrilak13-20-27 eta otsailak 3 | 7.200 pta. |
| EXCEL Kalkulu orria | 15 ordu | 17:00-20:00 | Ostirala | Urlarrilak 12-19-26 eta Otsailak 2 eta 9 | 5.200 pta. |
| ACCESS Datu Basea | 15 ordu | 17:00-20:00 | Ostirala | Marbepak 2-9-16-23-30 | 5.200 pta. |
| WEB ORRIEN EDIZIOA | 15 ordu | 09:30-12:30 | Larunbata | Martxoak 3-10-17-24-31 | 7.200 pla. |

## 30 URT~ORAKOENTZAKO IKASTAROAK

2

| IKASTAROA | IRAUPENA | 0ROUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PRE/10A |
|---|---|---|---|---|---|
| WORD Testu Prozesadorea (aurreratua) | 20 ordu | 11:00-13:00 | Astel./Asteaz./Osti. | Otsailak 7-9-12-14 16-19-21-23-26-28 | 10.700 pla. |
| EXCEL Kalkulu orria | 24 ordu | 11:00-13:00 | Astei./Asteaz./Osti. | lvtartxoak 5-7-9-12 14-16-21-23-26-28-30 eta Apirilak 2 | 12.700 pta. |
| INTERNET | 12 ordu | 11:00-13:00 | Astear./Osteg. | Martxoak 6-8-13-15-20-22 | 8.500 pta. |


# Jokin Urain, `ALKORTA'ren

## OMENALDIA MENDARON tJrtarrilak 12 P4 tA 1.1añ




### urtarrilak 1 2, ostirala

**21:30 HITZALDIA** Kultur Etxean
*`Preso eta errefuxiatuen egoera'*
Hizlariak: Ainhoa Erkizia (abokatua)
Patxi Goenaga

### urtarrilak 1 3, larunbata

**18:30 GIZAKATEA Herrian zehar**

**Ondoren,**
**txalaparta eta bertsolariak**
**Kantariak-Garoa *eta Arantxa***
**Hizlaria - *Patxi Larrañaga* (A.A.B.-ko kidea)**
**Dantzariak**
**Lore eta opari banaketa familiartekoei**
**Bertsolariak - *J. Angel Salegi* (LIZARRETA)**
***tñigo izagirre* (OLABE)**

**21:30 BERTSO AFARIA**
**Mendaroko Intxusait jatetxean**

LASTURK0 BERE KOADRILA • LASTURKO ELKARTEA • MENDAROKO GAZTE ASANBLADA • MENDAROKO EH • DEBABEKO GESTORAK

t-roleztvro



## Toshack, azken itxaropena

Reala ohikoa baino zeresan handiagoa ematen ari da aurtengo ligan, baina azken 15 egunotan are gehiago. Toshacki harrera ezin hobea egin diote zaletuek, eta teknikoak itxaropen izpi bat ekarri die jarraitzaile txuriurdinei. `Toshack efektua'z mintzatu dira komunikabide asko eta asko. "La Real de Toshack mejorO mucho pero sOlo empatO en Anoeta" (Diario Vasco), "Ni con el efecto Toshack" (Gara), "Toshack no les resucita" (Deia), "La Real tampoco gana con Toshack" (E1 Correo). Hauek dira Euskal Herrian argitaratzen diren asteleheneko egunkarietako lehen orrietako titularrak, baina `La RazOn' egunkariak ere Realaren inguruan idatzi zuen astelehenean, albistearen muina igandeko partidua izan ez bazen ere. Egunkari horren arabera nazionalismoa Reala pozointzen ari da. Talde (1) txuriurdinaren krisia aldagelan hasten omen da, giroa pozoinduta baitago. Bitartean O Realeko administrazio kontseiluak Ignazio Gallok bazkideen batzarra aurreratzeko egindako eskaria atzera bota du, eskaera ez baitu era egokian egin. Dena O dela, jokalariek eta entrenatzaileak begiak hurrengo partiduan jarrita • dituzte, Athletic izango dute N arerio, bi taldeen arteko milurteko lehen derbia • jokatuko dute.

O

Leire Urkidi



## (((2x10)x10)x10)

**Bukatu** da Zenbakien Funtzioa. Se akabO. Bi milagarren urtearen hamabi hilabeteak bete beteak daude dagoeneko, 365 "kilo-egun" irabazi dituzte egia esateko. Ahaztu gabe noski "kilo-egun" bakoitza, 24 "ordu-gramo"z osatuta dagoela. Atera zeuek kontuak. Hau, pasa den urteari dagokionez. Laurogeita hamargarren hamarkada ere hukatu dela jakinik, aurreko kopuruak bider 10 egin beharko genituzke. (Kalkulagailu zientifiko horietako baten beharrean aurkituko gara hurrengo esalditik aurrera). Baina denok primeran ikusi dugun bezala, Zenbakien Funtzio honetako protagonista nagusia mendea izan da. Hamar hamarkadaz osatutako mendea. Ehun urtez osatutako XX. mendea. Dagoeneko argiak itzali dituzte eta gortinak itxita daude. Baina berehala irekitzeko asmoarekin. lzan ere, atera da Funtzio herriaren izenburua: "2001: una odisea del espacio". Zuzendaria: Arthur C. Clarke. Sarrerak ohiko lekuetan salgai.

Eguzkiiie Aranberri

Gabo\ak argazKitan ........................ 71
motzak ............................................ i0
gehigarria ........................................ 13
kiROlAk 20
aGenda ........................................... 24

### IMH BERRIRO ERE!

Berriro ere IMHri buruz idaztera behartuta gaude gazteok. Hasiera batean euskarazko klaseak eskaintzen ez zituztelako izan zen. Zorionez euskarazko klaseak ematea lortu den arren, adierazpen askatasunik ez dagoela esan beharra daukagu. IMHko irakasleek ez dute `Gara' egunkaria irakurtzeko eskubiderik. Irakasleen gelako aretoan, 'El Pais', `El Mundo', `El Diario Vaseo', `El Correo Español' eta `Egunkari'a irakurri daitezke, baina `Gara' ez. Eta guk, Elgoibarko `Haika'ke kideok (IMH), galdera hau erantzuteko eskatuko genioke IMHko zuzendaritzari: Zergatik ez duzue `Gara' erosten? Ez al dago adierazpen askatasunik IMHn?

**NAN 15.236.562**
**Elgoibarko 'llaika'ren izenean.**

### OKUPAZIOKO EJERTZITOARI INTSUMISIOA

Orain dela gutxi okupazioko ejertzitoak beraien zozketak burutu ditu, non gazte asko legalki bahituak izateko zorian aurkitzen diren. Elgoibarren, jakin dudanez, askori datorren urtarrilaren 15erako egin diete gonbidapena, baina oraindik baduzue astia espainiar ejertzitoari buruhausteak sortzeko. Beraiek bidalitako gonbidapena eta jarraian dagoen testuaren bi kopiekin (bata zuretzat eta bestea militarrentzat) agertu beharreko koartelera jun (egun berean ez noski, lehenago) eta bertan entrega itzazu. Ez ahaztu zure kopia, militarren zigilua eta data jarrita dituela etxeratzeaz. Militarrei zuzendutako eskutitza: Nik (zeure izen abizenak eta N.A.N. zenbakia) soldaduska hasteko jakinarazpena itzultzen dizuet, eta euskaraz bidali diezadazuela eskatzen; hala nola, hemendik aurrera, nirekiko eduki nahi dituzuen harreman guztiak ere euskaraz izan daitezen nahiko nuke. Besterik gabe, eta aurretik eskerrak emanez, agurtzen da (izena abizena eta sinadura).

Hau egin eta gero, itxaron. Bi aukera daude: 1.- Erantzutea. Hau gertatuz gero hurrengo pausua zuen esku dago: Pausorik ez eman, Intsumitu deklaratu (koartelera idatzi bat bidaliz edo soldadutzara joan eta gero koarteleko intsumitu egin. 2.-Ez erantzutea. Kasu honetan denborarekin (ziurrenik) bake epaitegiko eskutitza jasoko duzu, Eibarrera deklaratzera joan behar duzula esanez. Lasai, egunean Eibarrera joan eta ez deklaratzeko eskubidea dugunez, hori egingo dugu. Hori bai, ez ahaztu militarrei eman zenien eskutitza eramatea, bertan baitago guztiaren gakoa. Hau da, gero, Donostian epaitua izango zara, ez ahaztu aldez aurretik epaiketa euskaraz izan dadin eskatzea. Guk hau egin genuen eta espainiar ejertzito faxistak ez zizkigun eskuak gainean jarri, beraz, badakizu, okupazioko ejertzito faxista espainiarrari intsumisioa.

NAN **15.395504**

## Urruzunoren begi izkutua




Elgoibarko taberna sexi batian: "Gure burutxuan gelatxo asko dittugu, atiekin. Substantzia batzuk hartzian, atietako bat, zabaldu eitten da. Denborak aurrera eitten dau, eta azkenian, ate hori, berriz itxita geratzen da. Baina batzutan, ez da ixten. Batzutan, atia betirako zabalikan gelditzen da, gure burutxuan. Ta beste batzutan, atia hainbestetan zabaldu eta itxi ibilli ostian, alpertu ta betirako zabalikan gelditzen da. Noraezerantz bidaiak probokatzen". Bibliografia: Teletetxo Mix vol 666.

**Amaia Urzelai**
URRUZLINO LDT,RATUR TALDEKOA

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
u 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barrenIttopagunea..com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.comfbarren
ARGITARATZA LEA
)c,r dr,

LAGUIMALEA Elgoibarko Udala ZU2E/IDAPIA Eli Aizpuru KAZETAGIAK Irat AgIrreazaldem, Asier Orbea PuaLOTATEA Andoitz AgirregOMeZk011a MAKETATZAILEA BeGAnsola ADIAINISTRAZIOA Alnara Ibaftez GEREPM1A Hale Alvarez, M. Angeles Ortuoste. KOLABORATZAILEAK Amaia Ladz, Unat Argarate, Eguzkifie Aranberri, Lorea Perez de Albeniz, Aitor Zabalela, Leire Urkidi, Oiga Unzilla. Montse Arregt Juanito Gorostla. Amaia Urzelai, lon Gurrulxaga, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. ela Urruzuno LI. AZALEKO ESALDLt Gotzon Garateren Iburutik OPFUMATEGIA Gerlu Koop, E. Mnana 4.000 ab LEGE GORDAILUA SS.1.033/92 ISSN 1139.1855

ELGOIDARKO IZARRA
AVATUI A

*Elgoibarka Udatak, Eusko Jaurlarazako KuPura Sailak ela Fora Aldundiak diruz Ingnridutako aldizkaria.*

.411:$A,N013AT
LS GOIT1
GRUPO DAINCOIIT

2001-I- 1 2

## IMIDLE1111

• Emakume batek honako galdera hau Iuzatu digu: "Musika handa zergatik ez da kahalgatarekin hatera irteten", dio berak. Bere iritziz bandak herrian horrelako garrantzia izanik, egun horretan ere irten beharko luke. Guk musika bandako zuzendari Jose Antonio Osorori luzatu diogu galdera eta hona hemen erantzuna:

"Kabalgata gehienetan lanegunean izaten da eta **bandako hainbat partaide lanean** daudenez, ez **litzateke egokia izango kide batzuk bakarrik ateratzea.** Bestalde, urtarrilaren 4an entsaioa egiten dugu eta urtarrilaren 6an, berriz, kalejira, San Lazaro Egoitzan emana]dia eta kontzertua. Beraz, kabalgatan ere joko bagenu guretzat gehiegizkoa izango litzateke eta musikoen ezpainentzat zer esanik ez".

## (&- 71110/\11

• Herritar batek **Pilar Ikastetxeko irakasleak eta ikasleak** txalotu nahi ditu, "abenduaren 21ean antolatu zuten jaialdian ikaragarrizko lana hartu zutelako eta guztia ongi baino hobeto atera zelako".

• **Elgoibarko Ikastolak** Gabonzahar **feriako txosna** dela-eta, bertan parte hartu zuten guztiei eskerrik beroenak Iuzatu nahi dizkie, emandako laguntzarengatik.

• Emakume talde bat hurbildu zaigu erredakziora **katekista taldea** txalotzera: "Kabalgata egunean antolatzaileek egindako lana txalotzekoa baita, ikaragarri polita izan baitzen eta prestaketetan hartu zuten lana ere ez zen nolanahikoa izan".

## VENEZUELA



**Ana Raria** eta bere senarra den Jesusek 3 aste pasa zituzten Venezuelan pasa den abuztuan. Aspalditik zerabilten buruan Venezuelara bidaiatzea, batez ere, Anak senideak dituelako bertan, "herrialdeak bizi duen segurtasun falta dela-eta, ez ginen joatera ausartzen, baina gauzak hobeto zeudela esan zigutenean animatu egin ginen. Bidaiari dagokionez, Caracas hiriburuan 4 egun egin zituzten, handik Ciudad Bolivar-era joan ziren, Amazonas oihanera. Gero, Canaimako parke naturalera joan ziren. Bertatik, `Salto del Angel' urjauzi ikusgarriak ikustera joan ziren, munduko altuenak baitira. Venezuela asko gustatu zaiela aitortu digute, "herrialde oso handia da eta denetik dauka; Karibea iparraldean, oihan tropikala, Orinoko ibaia, Andeen hasiera... berriz joan eta gauzarik errepikatu gabe bisitatu daiteke. Zerbait konkretua aipatzekotan: Canaimako oihana ikusgarria da, lau egun pasa genituen bertako indigenekin elkarbizitzen". Venezuelan bizi den elgoibartar batekin egon zirela ere aipatu digute, "Chichiribiche herrian 'Txalupa' jatetxe bat daukan Sebas Etxanizekin izan ginen".

VIAJES BIDAIAK
3IL3RO EXPQESS
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparantza, 3• Tel: 943 74 39 12

## Barrak, Birrak eta Barreak



2001 -I- I 2

# gabonak



## Gabon Egunean...

Olentzero menditik Elgoibarko kaleetara jaitsi zen eta gaztetxoek ongi etorria egin zioten aurrezkua dantzatuz. Haurrez inguratuta, Plazan, umeen eskutitzak jaso zituen eta baita goxokiak banatu ere.





Gazta lehiaketako saria Zaldibira joan zen baina elgoibartarrek ere jaso zuten saririk, Txillarre baserriko Pello Rubio barazkien atalean saritua

## Urrezko aizkora

Urrezko aizkorarako puntuagarria izan zen gabonzahar ferian Ikastolako frontoian jokatu zen saioa. Petiagarikano eta Nazabalek irabazi zieten Olasagasti eta Arrospideri. Inaxio Perurena gazteak berriz, ikuskizun polita eskaini zuen.














# ARGAZKITAN



## Gabonzahar feria

Herritarrek eta hainbat kanpotarrek ere trikiti doinuekin hasi zuten eguna. Fruta, barazki, gazta eta animali..., izan zen zer ikusia eta dastatua.



izan zen eta berak jaso zuen baita ere herriko posturik onenaren oroigarria. Kalitateari dagokionean berriz, Zeleta baserrira joan zen.





## Erregeen kabalgata

25 urte ez dira alferrik pasa eta zaldian agertu ohi ziren erregeak aurten karrozetan azaldu dira Elgoibarrera.

1977an hartu zuten katekistek kabalgata antolatzeko ardura eta aurten ere lan bikaina burutu dute. Herritarren eta umeen partaidetza ezinbesteko izan zen errege bezperako eguna ongi baino hobeto ateratzeko.









# URTE BERRIAREN HASIERAN PROMESIK EGIN AL DIOZU ZEURE BURUARI?



## BENITO MARIN

**69 urte, jubilatua**

Promes berezirik ez dut egin. Erretzeari orain dela 6 hilabete utzi nion inolako promesik egin gabe, eta orain egin behar dudan bakarra osasuna piska bat zaintzea da.



## MIRTIA AUILA

**19 urte, etxekoandrea**

Ez, ez dut urte berrirako promesik egin, iaz bezalaxe jarraituz gero nahikoa izango litzateke niretzat, ez dut aldaketen beharrik somatu,



## JESUS M. AIWURUA

**41 urte, modelista**

Ditudan zulotxoak tapatzeko dirua aurreratzen saiatuko naiz. Baina gehienetan promesak betetzea zaila izaten da, eta asko kostatuko zaidala uste dut.



## AMAIA ARRIZABALAGA

**31 urte, administraria**

Promesa baino gehiago eskaria egin diot urte berriari. Iazkoa nahiko txarra izan da eta aurtengoa hobeto joatea besterik ez dut nahi.



## CONCHI MARTINEZ

**46 urte, administraria**

Promesik ez dut egin, baina urte berria iazkoa bezalakoa izan dadin eskatu dut. Gainera, zertarako promesak egin gero bete behar ez baditut.



## ION VICENTE LOPEZOSA

**15 urte, ikaslea**

Ez dut beharrik izan. Orain arte guztia ondo joan zait eta horrela jarraitzearekin nahikoa dut.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %01 OEKO BEHERAPENA

94414 ellayt azdomeo teouloa 16 latetelu, igagi

LARRAÑAGA
AUTOESKOL
Tel: 943 74 10 11

# Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 13 | Bidasolo* | Zabaleta |
| 14 | Bidasolo* | Zabaleta |
| 15 | Etxeberria (Errosorio kolean) | Etxeberria |
| 16 | Escala | Escala |
| 17 | Bidasolo | Bidasolo |
| 18 | Etxeberria Santa Ana Icalconl | Etxeberria |
| 19 | Fernandez | Fernandez |

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel• 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze
Tel 943 75 13 84

*(eguercilko 2ak arte)

**OKINDEGIA**

14 igande(.. **Zabaleta**


# ETXEBERRIA

11.1.1e La
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK* • TRASLADOAK .*KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIET zuzenduriko zerbitzuak.

**Donostia** eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01


# ABENDUA

r .r‚r1 r

Iker Casado Gorosabel
Abenduak 9

Julen Mujika Sasiain
Abenduak 12

Iker Gil Torres
Abenduak 13

Jon Vela Fernandez de Jaregi
Abenduak 16

Maria Beraza Cengotita
Abenduak 20

Amaia Eizagirre Arriola
Abenduak 23

Unai Guardia Iglesias
Abenduak 27

Aitor Iranzo Lobete
Abenduak 30

## EZKONTZAK

Ez da ezkontzarik egon.

## -C13.11911

ELGOIBAR

Antonio Toledano Garcia
91 urte, abenduak 5

Tomas Coll Alcove
63 urte, abenduak 10

Jose Luis Agirregomezkorta Arregi
74 urte, abenduak 24

# Asier Marcilla Plaza elgoillartarra izan da 2001. urtean Euskal Herrian jaio den lehen umea

## Bestalde, Elgoibarko biztanle kopuruak behera egin du azken urteotan

Joan den urtarrilaren lean goizaldeko 00:04 minutuan jaio zen, Mendaroko ospitalean, Asier Marcilla Plaza elgoibartarra. Urteko lehen euskalduna izateaz gain, mendea eta milurtekoa estreinatzen ere lehena izan da Asier. Ana Mari Plazak, Asierren amak, esan digunez, "haurra urtarrilaren erdialdera jaioko zela esan zidaten, baina nik somatu nuen Asier presaka zetorrela. Abenduaren 31 eguerdian Mendarora joan eta gauerdia pasa eta berehala izan nuen haurra, ia enteratu ere egin gabe. Auntko partoa ere oso ongi atera zen eta oraingoarekin ere oso pozik nago".

Ana Mari Plaza eta Teo Marcillaren familietako kideek ez zuten motiborik falta izan urtezahar gauean xanpainarekin topa egiteko, Gipuzkoan ezezik Euskadin jaiotako lehen umea beraien etxekoa izatea ez baita nolanahikoa. Zorionak bada Ana Mari eta Teo gurasoei, eta baita Asierren arreba Joanari ere.



*2,550 Kg. pisatu ziluen Asierrek jalotzean.*

**Elgoibarko biztanle kopurua behera**

Asierrek mundura jaiotzeko presa izan bazuen ere, badirudi ez direla azken aldian asko bide hori hartu dutenak. Izan ere, 1999ko erroldari begira Elgoibarko biztanle kopuruak behera egin duela ikus genezake. 10.750 elgoibartar ginen 1999ko urtarrilaren lean, 1998an baino 34 gutxiago. Hala ere, kontutan hartuta aurreko urteetan 200 eta 400 pertsonako beherakadak izan zirela, azken jaitsiera ez da horrenbestekoa izan.

Azken mendean gorabehera ugari izan ostean, 80, hamarkadatik hona biztanle kopuruak behera egin du orain artean. Horren arrazoietako bat Mendaro herri bihurtzea izan zen, baina gerora ere, piskanaka, gero eta elgoibartar gutxiago dago herrian, azken erroldaren arabera, 10.750.

BIODEPILAZIO HALAWA METODOA
guztiz Sistema fiaturala
BARIZE, ARMIARMA BASKULAR, 1LDO, DERMATITIS, PSORIASIS, ZELULITIS, HAURDUNALDI, LODITASUN, ETB. KASUETARAKO BEREZIKI GOMENDATUA.
.Eure erosotasunerako etxez-etxeko zerbitzua ere eskaintzen dugu.
EGUNERO
Telefonoa: 943 744 669
Mobila: 653 717 874
OSTEGUNETAN KONTSULTA Surya Belardendan

G1ZONEZKOA BEHAR DA
FUNERARIAN lan egiteko
Euskaraz hitz egiten eta idazten jakitea beharrezkoa da.
943 741 327

OIERK1 IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
E» 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea • 20600 EIBAR



## IMHn metalmekanizazio ikastaroa egingo dute 12 teknikari malaysiarrek

Joan den astelehenean, hilaren 8an, IMHko Ekitaldi Aretoan aurkeztu zuten "Malasyan-Spanish Institute" proiektuaren lehen fasea. Malaysiako Kulim hirian eraikitzeko asmoa dute metalmekanika arloko institutu hau eta horretarako 12 teknikari prestatuko dituzte IMHn. Hezkuntza teknologiaren transferentzia helburu duen `Contes' enpresak gidatuko du ikastaroa Malis Amanah Rakyat erakunde malaysiarrarekin sinatutako akordio bati esker. Elgoibarrera etorri diren 12 teknikariek 8 hilabeteko ikastaroa egingo dute IMHn. Besteak beste, fabrikazio mekanikoa, mantenimendua, muntaketa eta diseinu industriala landuko dituzte, baita inguruko zenbait enpresa eta ikastetxe bisitatu ere.

## Familian euskararen transmisioa hultzalzeko kanpaina jarri du martxan Udalak




1

Euskararen transmisioan gurasoek duten garrantziaz ohartuta, ? haurra izan berri duten gurasoei zuzendutako kanpaina jarri du martxan Udalak "Etxetik hasi behar delako" lemapean. Horretarako, gurasoek umea Elgoibarko Epaitegian inskribatzerakoan Udalaren mezua eta oparitxo bat jasoko dute. Mezu horren bidez, euskara erabiltzeko eta ikasteko aholkua emateaz gain, Elgoibarko euskaltegietan euskara ikasteko dirulaguntzak jasoko dituzte. B anatuko diren orrietan hainbat aholku ere eman nahi dituzte euskara modu egokian erabiltzeko eta horrekin batera baita `baberotxo' bat ere.

ARAMBURU
BITXIDENDA

***Aramburu bitxidendako Gabonetako zozketako zenbaki sarituak:***

***1.saria:*** *Gizonezkoentzat urrezko erlojua*
***A <u>seriea 3.640</u>***
**Ordezkoa:*
*A seriea 1.858*

***2. saria:*** *Emakumezkoentzat urrezko erlojua*
***B <u>seriea 5.623</u>***
**Ordezkoa:*
*B seriea 740*



**San Frantzisko, 26 • Tel. 943 742 535**

## Parrokiako eta ALCEReko loteria erosi zutenek jokatutako dirua kobratuko dute

Abenduaren 22ko loteriaren zozketarako Parrokiako txartela erosi zutenei jakinarazi nahi zaie jokatutako dirua kobratuko dutela. Dirua jaso nahi dutenek Parrokiak Ubitarten duen bulegora joan beharko dute goizez, 11:00etatik 13:00etara. Bestalde, giltzurrun gaixoa dutenen ALCER elkaneak ere loteria saldu zuen Gabonetan, eta bertako kideek jakinarazi nahi dute Euskadiko Kutxako bulegoan kobratu daitekela jokatutako kopuru bera, urtarrilaren 16tik aurrera. Bide batez Parrokiakoek eta baita ALCERekoek ere herritarren laguntza eskenu nahi dute.

## Ur, zabor eta estolderia zergen ordainketa

2000. urteko laugarren hiruhilabeteari dagozkion ur, zabor eta estolderia zergak ordaintzeko azken eguna urtarrilaren 27a izango da. Erreziboak helbideratu gabe dauzkatenek udaletxeko diru bilketa bulegoan edo edozein banketxetan egin ahal izango dute ordainketa. Aipatutako epetik kanpora ordaintzen dutenei %20a gehiago kobratuko zaie. Bestalde, ordainketak errazteko ordainagiriak helbideratzeko gomendioa luzatu nahi diete herritarrei Udaletik.

## Odol Emaileen Elkartearen eskerrak

Gure erredakziora helarazi duten idatzi baten bidez Elgoibarko Odol Emaileen Elkartekoek eskerrak eman nahi dizkiete odol emaileei eta laguntzaileei, beraien lana zuzen egiteko emandako laguntzarengatik.Atparnen berezia egin nahi diete Udalari, 'Altzolako Ura'k enpresari, lbar edari banatzaileari, 'Aitzbizkar Ardoak'ekoei, 'Euskadiko Kutxa'koei eta "Txankakua'koei. 2000. urtean Elgoibarko ordezkaritzak 309 litro odol bidali zituen Gipuzkoako odol bankura, iaz baino 9 litro gehiago. Bide batez herritarrak animatu nahi dituzte odola ematera eta elkartean parte hartzera.

## Jon Revertek eta Diego Gonzalezek eskuratu dituzte Pedrusko futbol taldeko otarrak

Gabon jaien aitzakian Pedrusko futbol taldeak bi otarre zozketatu zituen bere bazkideen artean. Otarreak etxera eraman zituztenak Jon Revert eta Diego Gonzalez izan ziren. Lerro hauen bidez Pedruskoko jokalariek eta arduradunek urte berri zoriontsua opa nahi diete henitarrei.



## Karakateko antenan ipinitako lehergailua indargabetzea lortu zuen Ertzaintzak urtarrilaren 3an

Joan den urtarrilaren 3an Karakateko antenan ipinitako lehergailu bat indargabetu zuen Ertzaintzak. Langile batek errepikagailura gerturatu eta susmagarria zen zerbait ikustean ertzainei deitu zien. Mekanismoak huts egin zuelako ez omen zuen lehergailuak eztanda egin. Ertzainek ordu erdi behar izan zuten 25 litro gasolinaz, erloju batez, adierazleaz eta kablez osatutako lehergailua indargabetzeko.





***I. URTEURRENA***

*2000ko urtarrilaren 10ean, **94** urte zituela hil zen*
***ALBERTA ETXANIZ ARRIETAren** oroimenez*
***URTEURRENEKO MEZA** izango da*
*Parrokian larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 19:00etan.*
*Pango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



11
BARREN
ASTEKARIA
2001ko urtarrila/IX. urtea/346 zkia



# elkarrizketa

100 URTE Q DITU Ŕ. ORK B h.
MENDE OSO BAT BIZ TEAN M7,11T-11 T\17,',91U1
PAUSOA EMATEN DUT AK. HO
EIZAGIRRE, DEBARRA 1ZAN ARREN AZKEN BI URTEOTAN
ELGOIBARKO SAN LAZARO EGOITZAN BIZI DENA. 100 URTE
HITZ GUTXITAN LABURTZEA EZ DA ERRAZA, BAINA
AHALEGIN TXIKI BAT EGINEZ HONA HEMEN JESUSA
EIZAGIRREREN BERRI.

# Jesusa Eizogirre

" KONTURATU GABE EGIN DITUT EHUN URTE"

***ORAIN DELA EHUN URTE PASATX0 IKUSI ZUEN JESUSA EIZAGIRREK ARGIA LEHEN ALDIZ 1900. URTEKO ABENDUAREN 19AN IKUSI ZUEN. DEBARRA DA IZATEZ JESUSA, BAINA DUELA PARE BAT URTE ETORRI ZEN ELGOIBARRERA, SAN LAZARO EGOITZAN BIZITZERA. GURE ARTEAN ONDO MOLDATU DA, ETA BERE DEBA SALTZEKO EZ BADU ERE ELGOIBARTARREK EDERKI ZAIlVTZEN DUTELA ESAN DIGU. BERE BURUA ERE ONDO ZAINIZEN DU, KOKETA SAIIIARRA ERE BADA. KANPOTIK EZEZIK BARRUTIK ERE OSASUNTSU DAGOELA IKUSI DUGU, ETA BURUTIK ZER ESANIK EZ ARTEAN 100 URTE BETETZEAR ZELA BERE ALDAMENEAN ESERI ETA HIZKETAN ARITU GINEN. DATA ETA DATU ZEHATZ GUZTIEKIN POLIKI-POLIKI BERE BIZITZAKO PASADIZOEN BERRI EMAN DIGUJESUSA EIZAGIRREK***

# Jesusa Eizagirre

## “Ia konturatu ga



Deharra zara jaiotzez, ezta?

Bai, hala da, Deban jaioa eta bertan bizi izandakoa. Orain dela hiru urte Gabonetan Bilbora joan nintzen eta bertan gaixotu, gero Donostian denboraldi bat igaro eta handik Elgoibarrera ekarri ninduten duela bi urte inguru, eta ordudanik nago hemen. Hala ere, argi daukat debarra naizela, eta herritarrek ere asko maite naute. 100 urte betetzear nintzela omenaldia egin zidaten bertan niretzako meza berezia eginez. Elizkizunaren amaieran `zorionak zuri' abestu zidaten guztiek eta pozez negar egin nuen.

**Zure bizitza luzean lanbide asko ezagututakoa omen zara.**

Bai. Batez ere etxean egin izan dut lan, baina beste lan batzuk ere ezagutu ditut. Gerra garaian herriko liburutegian aritu nintzen 5 urtetan. `Secekin Femenina'ren garaian ere taldeko partaide izan nintzen eta orduan osasun informazioa zabaltzeko ardura neukan. Sendagileari laguntzen nion baserrietako umeei injekzioak ipintzen. Gogoan daukat behin hiru egun egin nituela baserri batean. Orduan penizilina hiru ordutik behin eman behar izaten zen, eta oso gaixorik zegoen neskatila bati sendatzen lagundu nion. Nire ahizpa irakaslea zen eta katekesia erakusten ere lagundu nion berari. Asko nekatu gabe egiten ziren lantxoak aukeratu nituen nik.

Eta **denbora Iibrea zertan eramaten zenuen?**

Lagunen baten etxeara joan eta bertan berriketan aritzen ginen. Enkajeak egitea ere gustuko nuen, eta horrekin entretenitzen nintzen. Liburutegian egon nintzen garaian irakurri ere egiten nuen.

**Zer duzu nahiago, lehengo garaia ala oraingoa?**

Lehengoa. Orain denbora bizkorregi igarotzen da, eta gainera gazteek askatasun gehiegi dutela iruditzen zait eta bizitza gauez egiten dutela. Gure garaian, musika bandak jotzen zuenean, gauerdirako dena amaitzen zen. Orain hurrengo goizera arte ez da jendea etxeratzen. Gauza guztiak erabat aldatu dira.

# oe egin ditut ehun urte"

Lehengo garaietako zerbaiten faltarik somatzen al duzu?

Amarekiko maitasuna. Gu amari oso lotuta geunden eta oraingo gazteak lanera kanpora joan behar dutela-eta ez daude amarengandik hain gertu eta horrek pena handia ematen dit. Baina bizitza oso garesti dago gaur egun eta irabazi beharra dago. Lehen gutxi irabazten genuen, baina gattzak ere merkeagoak ziren; 45 zentimorekin kiloko ogia eros zitekeen. Orain, berriz, bileterik txikiena mila pezetakoa da, ikaratzeko modukoak dira prezioak.

**"ORAIN DENBORA BIZKORREGI IGAROTZEN DA, GAINERA GAZTEEK ASKATASUN GEHIEGI DUTE ETA BIZITZA GAUEZ EGITEN DUTE"**

Nola gogoratzen duzu gerra garaia?

Deban ez zen gauza handirik gertatu eta nahiko ongi pasa genuen. Soldaduak Debara etorri ohi ziren atseden hartzera eta beraiekin egoten ginen. Gogoan daukat baita ere `Seeciim Femenina'kook behartsuei janaria ematera joaten ginela garai hartan.

Ezagutu dituzun aurrerakuntzen artean zein izan da onena?

Medikuntzak era harrigarrian aurrera egin duela uste dut. Bestalde, garbigailua, aspiradora... sekulakoak izan dira emakumeari etxeko lanetan laguntzeko, baina oraingo emakumeak apenas egiten du lanik etxean, aurrerapenei esker. Lehen sukaldean ekonomika geneukan eta bero handia eman arren, gehiago zikintzen zuen.

Garraiobideetan ere izan da aurrerakuntzarik.

Hala da, bai. Ni umea nintzenean etxe ondotik bidea pasatzen zen, berez leku arriskutsua izan behar zuen, baina gu han ibiltzen ginen jolasean eta ez zitzaigun sekula ezer ere pasa, apenas pasatzen zelako autorik. Orain hegazkina, itsasontzia... badaude, baina nik ez ditut inoiz probatu, ezta probatuko ere, ni lurrean ibiltzen direnekin bakarrik fidatzen naiz. Garate anaia beatifikatu zutenean Erromara joan nahi nuen, baina bidaia luzea zenez ez nintzen joan.

Zein da hainbeste urte bizitzeko sekretua?

la konturatu ere egin gabe egin ditut ehun urte, inolako sekreturik gabe. Inoiz pentsatu izan dut lan gogorrik egin ez dudalako iritsi naizela hainbeste urte izatera. Gainera, 97 urte bete nituen arte ez nintzen inoiz sendagilearengana joan. Orduan makalaldi bat izan arren aurrera jarraitu dut orain arte.

Badira bi urte inguru Elgoibarrera etorri zinela, ezta?

Donostiako erresidentzia batean nengoen, eta Elgoibarrera etortzeko proposamena egin zidaten. Nik mojak zeuden leku batean egon nahi nuen, eta Debatik gertu zegoenez, baiezkoa eman nuen. Mojak segituan joan ziren, baina orain hemen lanean ari direnek ere oso ongi zaintzen naute eta oso gustura nago bertan. Kalera gutxitan ateratzen naiz, bakarrik ezin naizelako joan, hala ere, jendeak kasu egiten dit eta oso ongi portatzen dira nirekin.

**"INOIZ PENTSATU IZAN DUT LAN GOGORRIK EGIN EZ DUDALAKO IRITSI NAIZELA HAINBESTE URTE IZATERA. 97 URTE BETE NITUEN ARTE EZ NINTZEN INOIZ SENDAGILEARENGANA JOAN""**

4311"i**





## `Emakumezkoen lapatakl opera antzeztuko du "Sarobe Opera Estudioakr hilaren 19an, ostiralean, Herriko Antzokian

### San Anton jaietako egitarauaren barneko ikuskizuna da

*Datorren astecrzkenean San Anton eguna dela-eta hainbot ekŕtafdi antolatu ditu Udalak jai egun honen inguruan. Emanald; horien artean bada bat berezia: urtarrilaren I 9ko opera saioa hain zuzen ere. Imakumezkoen Zapatak' lana taularatuko du Sarobe Opera Estudioak Herriko Antzokian, urtarrilaren 19an' gaueko 22:30ean.*

Aurrez izanak dira Sarobe Opera Estudiokoak Elgoibarren 'Iziar' operarekin, eta antzerki mota hau berreskuratzeko lanean bigarren obra aurkeztuko du oraingoan: 'Emakumezkoen Zapatak' opera. Enrique Santiagoren testua du lan honek eta musikaz AngeI Illarramendi arduratu da. Emakumeen eta gizonezkoen arteko harremanak gaitzat hartuta idatzi dute gidoia, beti ere gaur egungo ikuspuntutik begiratuta.

Opera honek zerbait frogatu nahi duen gizon baten eta berari ezer demostratu diezaioten nahi ez duen emakumearen istorioa kontatzen du. Bakoitzak besteari gertatzen zaionari buruzko iritzia du, eta era berean norbere burua babestu nahiko du.

Kalitatezko profesional euskaldunen aldeko apustua egin du Sarobek abeslari, musikari eta sortzaileen talde egonkorra osatuz. Bere helburu nagusienetariko bat ikusle gazteak erakartzea da eta horretarako ausardiaz eta maiztasunez programatu nahi dituzte horrelako emanaIdiak.

> Kalitatezko profesional euskalclunen alcieko apustua egin clu Sarobek

Beraz, opera gustuko duzuenok, edo era honetako ikuskizun batekin goza daitekeela uste duzuenok horretarako aukera izango duzue datorren urtarrilaren 19an, ostirala, gaueko 22:30ean Herriko Antzokian egingo den saio berezi honekin.

## Sebas Etxabek eta Kristina Berguak irabazi dute Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako argazki lehiaketa

### Guztira 12 lagunek hartu dute parte

